

UMEEN EGUNA. Gustura zeuden haurrak eskolarik ez zutela-eta

# Azokako kaleak, umez blai

Txotxongiloen ikuskizunaz gozatu zuten txikienek, helduagoek, berriz, mahai gainak hustu eta poltsak bete zituzten

Ainara Gorostitzu | DURANGO

Durangoko azokako Barrenkale, Bekokale, Aurrekokale, Artekokale eta azokarentzat prestatzen diren kale guztiek haurren bisita izan zuten atzokoan. Baina ez ziren nahikoa izan, motz gelditu ziren azokako kaleak atzoko ume andana jasotzeko. Aurrera begiratu, atzera biratu, umez blai zeuden erakusmahai inguruak, eta azokak dituen txoko guztiak.

Megafoniako musikaren gainetik, haurren oihuek eta zalapartek inguratzen zituzten liburuak, diskoak eta bestelakoak. Atzokoan, liburuak, diskoak eta haurrak izan ziren protagonista nagusiak.

Protagonismo hori nabaritu zen egitarauan ere, euren zuzendurik baitzegoen Antzezkiuna giñol deituriko taldeak eskainiriko txotxongilo saioa. «Durangoko azokarekin erabat bat datorren ikuskizuna da hau, liburuetan gordetako dauden euskal mitologiako pertsonaiak baitira protagonista. Galtzar dagoen altxor hori liburuetan gordeta dagoela konturatzen da Eneko protagonista», adierazi zuen taldekideetako batek.

Haurrik txikiak mugitu gabe egon ziren txotxongiloen begira. Helduagoak, bien bitartean, kaleetan zebiltzan hura eta bestea begiratu. Bata bes-

## ANEKDOTA

### Liburu eta diskoak poltsara, ordaindu gabe

Argitaratzaile ugariaren ahotan zebilen atzokoan «eskuluze» ugari zebilela. Ohikoa izaten da azokaren lehen egunean haurrek liburuak eta diskoak hartzea, gero ordaindu behar dutela ahaztuta. Zenbaitek disimulu handiz egiten zuten lapurreta, baina beste askok denbora askorik itxaron gabe sartzen zuten erosgaia poltsan.

## DATUA

### 200 autobus ilaran

Udaltzainek adierazi zuten, eskoluz betetako 200 autobus inguru gerturatu ziren atzokoan Durangora. Trenez ere beste haur asko etorri ziren inguruko herrietatik. Haurren kopuruaren aldetik oso arrakastatsua izan zen atzoko eguna.

tearengandik orratz bat bera ere sartzeko tokirik utzi gabe, ez baitzegoen gehiagorenzat lekurik.

Orduak aurrera joan ahala, mahai gainak hustutzen eta poltsak betetzen zihoazen. Haurrengana inguratu eta pare bat

galdera egiterako, nabaria zen erantzun aurretik euren poztasuna. «Egunero izan behar zen azoka», errepikatzen zuten behin eta berriz haurrek, Durangoko giroaz galdegiten zitzaienean. Hain literatur eta musika zaleak ote ditugu euskal haurrak?

### Eskolarik gabeko eguna

Azokako alde guztietan entzun zitezkeen barre algara eta oihuen arrazoiak jakitea ez zen misterio handia izan, guztien ahotan baitzebilien eskolarik gabeko egunak zekarkien poza. Hala adierazi zuten Ondarruko Domeka, Alain eta Aitorrek, 12 urteko gazte txoek. Helduago nahiz gazteago, antzekoak ziren guztiek horren inguruan zuten iritzia, hala zioen 16 urteko Irati donostiarrak, «hemen ikastolan baino gertuago ditugu liburuak, horregatik egunero etorri behar genuke Durangoko azokara».

Txikiak harriturik gelditu ziren hainbeste liburu elkarren ondoan ikusirik. 7 urteko Kepa ondarrutarrak zioen «gehiegi daude, inork ezin ditu guztiak irakurri».

Poltsaz poltsa, batean zein bestean, Harry Potterren liburuak ikusi geni-



**TXOTXONGILOAK.** Txikiak mugitu gabe egon ziren Antzezkiuna giñol taldearen *Euskal ipuinak* ikusten. Azokarekin lotura handia zuen saioak.

<b>XX. Mendearen argi-itxalak</b> <i>PELLO SALABURU</i> SAIKERA SAILA	<b>Mentura dugun artean</b> <i>ANJEL LERTXUNDI</i> SAIKERA SAILA	<b>Koldo Mitxelena gure artean</b> SAIKERA SAILA
<b>Septentrio</b> <i>AURELIA ARKOTXA</i> NARRAZIO SAILA	<b>Jostorratza eta haria</b> <i>YOLANDA ARRIETA</i> OSTIRAL SAILA	<b>Bakarrizketan</b> <i>HAINBAT IDAZLE UMOREZKO SOLAS BAKARTIAN</i> NARRAZIO SAILA
<b>Thailandiako noodle izugarriak</b> <i>JAVI CILLERO</i> OSINBERDE SAILA	<b>Harria mundu, mundua harri</b> <i>IÑAKI PERURENA</i> ZERBERRI SAILA	<b>Hitzak eta giltzak</b> <i>IÑIGO ARANBARRI</i> ZERBERRI SAILA